

## 1. BALIO PROPOSAMENA

Basauri inguruan egongo den lehen denda fisikoa, non bizikletak eta patineteak pertsonalizatu ahal izango diren bezeroen nahietara.

Guk, patineteak eta bizikletak saltzeaz gain, zerbitzu moduan haien konponketa eskainiko dugu bezeroei, edozein motatako arazoak izatean.

Patinete eta bizikleten diseinua berritzailea izango da. Bezeroek, hainbat diseinu ezberdin topa dezakete, kontuan izanda, bezeroek, bizikleten eta patineteen diseinua pertsonalizatu ahal izango dutela.

Gure bizikleten eta patineten fabrikatzaileek, 3 urteko garantia emango dute. Epe hori behin bukatuta, 50 eurorengatik, bezeroei eskaintzen diegu urteko garantia bat gurekin.

